

Telebistarekin hezten

Donostiako nerabeek uste dena baino telebista gutxiago ikusten dutela dio EHUko Komunikazioaren eta Hezkuntza Balioen Unesco Katedrak, munduko zortzi hiritan eginiko lanean.

Ainhoa Olartzabal

Komunikabideek hezi egiten gaituzte. Berez, ez dute helburu hori; beren helburua entretenitzea da, baina, hala ere, hezi egiten gaituzte». Concepcion Medrano EHUko Komunikazioaren eta Hezkuntza Balioen Unesco Katedraren koordinatzailearen arabera, oinarri horretatik abiatu behar dute egun nerabeekin lan egiten duten profesionalak eta haien gurasoek. «Eta telebistan ikusten dutenarekin kritikoak izaten erakutsi behar diegu».

Helburu hori lortzeko, munduko zortzi hiritako 1.220 neraberi (14-18 urte artekoak) galdeketa bat egin diete katedran parte hartzen duten hezkuntzaren eta komunikazioaren alorreko adituek, telebistan zer ikusten duten eta horrek nola eragiten dieten ondorioztatzeko datuak edukitzeko. *Telebista-dieta, nerabeen balioak eta identitatea* proiektuaren barnean egin dute ikerketa Donostian (Euskal Herria), Guadalajaran (Mexiko), Zaragozan (Espainia), Macorisen (Dominikar Errepublikan), Oruron (Bolivia), Rancaguan (Txile) eta, azkenik, Dublinen (Irlanda). Hau da, katedra osatzen duten irakasleen herrialdeetan eta EHUko ikasle eta ikerlariak lanean ari diren herrialdeetan.

«Testuinguru eta kultura diferentekoak izan arren, nerabeen

arteko aldeak ez dira hainbestekoak», zehaztu du Medranok datuen konparaketari buruz galdeketan. Baina telebistaren aurrean pasatzen duten ordu kopuruan bada alderik, Dublinen Donostian halako bi igarotzen baitute egunero; 4,6 ordu eta 2,45 ordu, hurrenez hurren. «Datuek horrek harritu gaitu, eta ondorioztatu dugu Donostian uste



Kultura diferentekoak izan arren, nerabeen arteko aldeak ez dira hainbestekoak»

«Telebista entretenitzeko ikusten dute; eta Internet, komunikatzeko»

CONCEPCION MEDRANO
Katedraren koordinatzailea

dena baino ordu gutxiago ikusten dutela telebista».

Entrenitzea xede

Medranoren arabera, datu horiek erakusten dute telebista ez dela uste den bezain kaltegarria. Izan ere, egunero hiru orduren buruan ikustea ez deritza hainbeste denik. Ordu kopurua baino gehiago, bizi esperientzia edota lagunartek ez edukitzea da arriskutsuagoa telebistaren eraginari dagokionez: «Batzuetan gertatzen da telebistako pertso-



Katedrako kideak, G. Orozco, C. Medrano, J. Pindado, A. Aierbe eta J.I. Martinez de Morentin. J.I. MARTINEZ DE MORENTIN

naiaren sentimendu berak izaten dituztela. Baina hori, batik bat, bizi esperientzia murriztagoa duten nerabeetan gertatzen da». Hau da, kalera gutxi irten eta Internet eta telebista asko ikusten duen norbaitengan. «Mexikon adibidez, eta harritu gaitu, esaten ziguten beste sexuarekin harremanak nola izan jakiteko ere ikusten zutela telebista».

Medranok eta katedraren beste partaideek telebistan ikusten dituzten pertsonaiarik gustukoetan zein balio nabarmen-tzen dituzten galdegin diete nerabeek. «Eta jaso ditugun erantzunetan ez dago diferentzia handirik; besteak beste laguntzen dieten pertsonaiak baloratzen dituzte; tira, hori da, behintzat, erantzun dutena».

Medranok nabarmendu duenez, ez dituzte pertsonaiak estatu sozialaren arabera aukeratu-tzen. Batik bat, sinpatikoak eta umoretsuak direlako atsegin zaitzkie pertsonaiak; gero, pertso-

nalitateagatik; ondoren, egiten duten lanagatik; eta, azkenik, erakargarritasun fisikoagatik eta inteligentziagatik. «Horrek guztiorrek anguruzten du telebista entretenitzeko ikusten dutela. Eta Internet, berriz, elkarrekin komunikatzeko. Edo informatzeko eta lanak egiteko».

Beste ondorio batera eraman ditu erantzunetan jaso duten antzekotasunak: globalizazioak homogeneotasuna dakarrela, eta herrialde desberdinetako nerabeak berdindu egiten dituela. «Ei irakurketa ditu horrek: letetik, galdu egiten direk identitate zeinuenak, eta, bestetik, berdindu egiten direk azaugarriak. Hor dago eztabaida».

Konfiantza eman

Telebistako zabor programak direlakoekin lan egitearen aldekoak dira Medrano eta bere taldekideak, «horiek klasean ikasleekin aztertzearen aldekoak». Eta nerabeekin eztaba idatu bertan

agertzen diren eszena eta balioei buruz. Azken finean, ikusten dutenetik abiatuta hezi, eta jarra kritikoak sustatu. «Eta, horretarako, konfiantza eman behar diegu, eta ez pantailaren gainean egon. Internet eta telebista berez ez baitira txarrak; erabiltzen jakin behar da». Horregatik, nerabeen gurasoei lasaitasun mezua luzatu nahi diete, eta ez edukitzeko beldurrik komunikabideei, eta, batik bat, komunikabide sozietate berriei. Izan ere, Medranoren arabera, gurasoen parte hartzea oso desberdina da euren seme-alabak Internet edo telebista ikusten ari direla; «Interneti dagokionez, murriztaileagoak dira. Ez dutenez eurek dominatzen, kendu egiten diete askotar».

Guraso eta hezkuntzako profesionalen laguntza osoa, gidak egin eta argitaratzeko asmoa dute. Halaber, gauri lotutako hitzaldiak ere eman izan dituzte ikasleekin.

Telebistari eta Interneti ikasgeletako atek irekitzearen aldekoak

➔ EHUko Komunikazioaren eta Hezkuntza Balioen Unesco Katedra 2009an jarri zen martxan eta bere zeregia nagusia balio sistemaren ikerketa da. Esaterako, eta Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean, hezkuntza sistemaren barutik baloreak nola landu aztertzen izan dute. «Ez soilik ikasle- en baloreak, baizik ere irakasleentzat», zehaztu du Concepcion Medranok. Azken urteotan, berriz, komunikabideek balioen sistemari nola eragiten duten aztertzen jardun dute. Izan ere, gazteak sozializatzeko tresna izan daitezke, eta beren identitatea osatzeko eta balioak erakitzeko bide. «Hala, uste dugu gaur egunean oraindik ikasleentzat testu idatziarekin ari direla lanean. Hori ongi dago, baina zinematik, telebistatik, bideo jokoetatik, Internetetik datorenak, guzti horiek ere hezten du nerabeak».